

Gela irekia

# EGALIK: euskara enpresa--giroan kudeatzeko tresna

Juana Mari Ezker, Igone Saenz

*Hona hemen teknologia berriek gure alorrean, helduen euskalduntze--alfabetatzean, duten islaren beste adibide bat. EGALIK softwarea AEK-k eta Elgoibarko MEIk (Makina eta Erreminta Institutua) elkarlanean egindakoa da. Enpresa-munduan euskalduntzen ari direnentzat sortu dute, nork bere ikas-prozesua gertu-gertutik bideratu ahal izan dezan. Artikulua proiektuan bete-betean sarturik dauden bi arduradunen eskutik datorkigu.*

## 1. Sarrera

Arlo sozioekonomikoan euskararen normalizazio-prozesua abian jarri zenetik, aldaketa ugari izan ditugu euskalduntze-alorrean. Hizkuntza premia berezituak sortu dira euskararen ezagutza edo jakite-maila lortzetik erabilera sustatzera eta eskuratzera pasatzerakoan.

Aldi berean, erabilerari loturiko zenbait kontzeptuk garrantzi berezia hartu dute: hizkuntzaren eskurapena, erabileraren testuingurua, ahozko--idatzizko ekoizpena, trebetasun hartzaile eta sortzaileen ezaugarriak, ikaslearen autonomia,... Eskaeretan gertaturiko aldaketa ere nabaria izan da: ikastaro laburrak, helburu jakin batzuk lortzera bideratutako formakuntza, bertaratu gabeko klaseetarako aukerak,...

Faktore hauek guztiek eragin handia izan dute gure jardun metodologikoan eta birplanteamendu didaktikoari eragiten diote formazio-prozesuaren urrats guztietan: hasierako diagnosian, ikastaroaren diseinuan, eskola-jardueretan –prestaketan zein ematean– eta ebaluazioan.

Formazio-prozesuaren lehenengo urratsa diagnostikoa da, ezinbesteko fasea izanik, kalitatezko formazioa eta ebaluazioa bermatu ahal izateko.

## 2. Diagnostikoaren garrantzia

Arlo sozioekonomikoan hedatzen ari den euskararen normalizazio-prozesuaren helburua euskara lan-hizkuntza izatea da. Gero eta gehiago dira erabilera-planak bere egiten dituzten enpresak.

Enpresa bakoitzaren ezaugarriei egokitutako euskara-planak egiten dira.

Langileek lan-jarduera zehatzak euskaldundu behar izaten dituzte erabilera-planetan ezartzen diren hizkuntza-irizpideak bete ahal izateko.

AEK-k enpresak euskalduntzean duen eskarmentua dela medio, langileen hizkuntza-gaitasunak lan-eginkizunekin uztartu beharra oinarrizko baldintza dela ulertzen du euskara lan-hizkuntza izatera hel dadin.

Orain arte, diagnostikoa egiteko erabili izan diren teknikek hutsune didaktiko zenbait agerian utzi dituzte.

Helburuak behar duen mailan zehazteko zailtasunekin topo egin dugu, horrek dakartzan ondorioek formazioan eta ebaluazioan eragina izanik.

Zailtasunak honako kasu hauetan, besteak beste, sortu izan dira; nahiz eta, beste zenbaitetan ere nabarmendu:

- Enpresa edo lan-esparruko taldeetan.
- Modulazio txikiko ikastaroetan.
- Formazio berezitua eta pertsonalizatua behar denetan (lanbide liberalen arloan esaterako).

Beraz, diagnosi zehatzaren beharra izan da kezka hauen guztien ondorioa.

Diagnostiko zehatza beharrezkoa da formazio egokitua eskaini ahal izateko. Eta, ZER, NOIZ eta NOLA ebaluatu diagnostikoak esango baitu.

Aipatutako guztiari eraginkortasunez erantzuteko asmoz, sortu da EGALIK softwarea.

## 3. Zer da EGALIK?

EGALIK: euskara gaitasunaren kudeaketarako softwarea da (**.1**).

*.1:*

### 4. Nork-Nola sortu du EGALIK?

AEK-k garrantzizko jotzen du ematen dituen zerbitzuetan, aukera berriak aztertu eta eskaintzea, horien kalitatea hobetuz eta esparru berrietara zabalduz.

EGALIK AEKren eta Elgoibarko Makina Erreminta Institutuaren arteko lankidetzaren bidez sortutako tresna da.

### 5. Nori zuzendua

EGALIK, batez ere euskararen normalizazio-prozesuan murgiltzen diren enpresetan erabiltzeko sortu den arren, bere erabilpen-eremua oso zabala da. Malgutasuna da dituen ezaugarritako bat, eta horri esker, egokitzapen eta moldaketak egiteko aukera ematen du bestelako esparruetan ere, erabilgarri bihurtuz.

Besteak beste:

- Euskara lan-hizkuntza duten erakunde pribatu zein publikoetan.
- Ikastetxe eta Hezkuntza zentroetan.
- Administrazio publikoan: Udal, Foru Aldundietan...
- Euskaltegietan.

Zertarako?

- Langileen euskara gaitasunaren diagnosirako, ebaluaziorako eta kudeaketarako.
- Lanpostuen errotaziorako zein pertsonal hautaketarako.
- Profil linguistikoaren definizioa egiteko.
- Ikasleen mailaketarako barnetegietan...
- Euskalduntze-prozesuaren mailak ebaluatzeko.

### 6. Abantailak

Lehenengo eta behin, teknologiaren aplikapenak lan sistematizazioan duen eragina nabarmena da (**.2**).

**1** Enpresako langileek lan-eginkizunetan / lan-jardueretan duten hizkuntza-gaitasunen egoera grafiko batean ikustaraztea. Hau da, diagnostikaturiko enpresa, sail, lanpostu, edo langileen uneko hizkuntza egoera irudikatua.

**2** Lehentasunezko ikas-beharrak eta helburuak zehaztea errazten dio enpresari. Hizkuntza egoeraren mapa grafikoan oinarrituta, enpresak badaki errealitatea zein den, premia nagusienak zein diren, zertan eta non eragin.

**3** Zehaztutako ikas-behar eta helburuei erantzungo dien formazioa diseinatzeko laguntza. Formazio-planaren inbertsio ahalegina kudeatu ahalizateko.

**4** Formazio berezitua eta horren ebaluazioa ahalbidetzen du. Hasierako diagnosia izango da formazio berezitua eta ebaluazioaren oinarria.

**5** Ebaluazio emaitzen arabera formazioa berregokitzea. Hasierako diagnosiak eta ebaluazioaren arteko aldeak formazioaren egokitasunaren betetze maila adieraziko du. Honen arabera egingo dira beharrezko moldaketak formazio prozesuan zehar.

*.2:*




## *7. Egalik-en egitura*

Tresnaren lehen pantailan (**.3**), enpresako lan-eginkizun ezberdinak burutzeko beharrezkoak diren hizkuntza-gaitasunak agertuko dira lau trebetasunetan sailkaturik.

### *7.1 Hizkuntza--gaitasunak*

Hizkuntzaren erabilerak trebetasun batzuk batera erabiltzea dakarren arren, argitze eta egituratze aldera, ohiko lau trebetasunetan funtsaturik taxutu dugu zerrenda:

**1** Idatzizkoaren ulermena (irakurmena)
**2** Entzutezkoaren ulermena (entzumena)
**3** Idazmena
**4** Mintzamena

Trebetasun bakoitzari dagozkion helburu orokorrak edo lortu beharreko gaitasunak agertuko dira:

*Adib.: 1. Idatzizkoaren ulermena (irakurmena)*

1.1. Ohiko postaren edukia ulertzea.
1.2. Oro har, agiri formalen edukia ulertzea.
1.3. Oro har, lege izaerako agiri profesionalak ulertzea.

*.3:*

| Arloko mapa | | IDATZIZKOAREN ULERMENA (IRAKURMENA) | ENTZUTEZKOAREN ULERMENA (ENTZUMENA) | IDAZMENA | MINTZAMENA |
|---|---|---|---|---|---|
| Artxiboa | 1 | OHIKO POSTAREN EDUKIA ULERTZEA | TELEFONO BIDEZKO OHIKO KOMUNIKAZIOEN EDUKIA ULERTZEA | OHIKO POSTA IDAZTEA | OHIKO TELEFONO-KOMUNIKAZIOETAN ARITZEKO GAI IZATEA |
| Edizioa | 2 | ORO HAR, AGIRI FORMALEN EDUKIA ULERTZEA | BARRUKO EDO LANKIDE/BEZERO EUSKALDUNEKIKO LAN-BILEREN OINARRIZKO EDUKIA ULERTZEA | LAN AGIRIAK ETA AGIRI PRAKTIKOAK IDAZTEA | BARRUKO EDO EUSKAL HIZTUNEKIKO LAN-BILERETAN PARTE-HARTZEA |
| Balioztapena | 3 | ORO HAR, LEGE-IZAERAKO AGIRI PROFESIONALAK ULERTZEA | GAI ESPEZIALIZATUEI BURUZKO HITZALDI / SOLASALDI / KOMUNIKAZIO / MINTEGIEN OINARRIZKO EDUKIA ULERTZEA | ENPRESAN ERABILTZEN DIREN INPRIMAKIAK IDAZTEA | AHOZKO JARRAIBIDEAK/AGINDUAK EMATEA |
| Tresnak | 4 | ENPRESA BARRUAN ERABILI OHI DIREN OHAR, OHARTARAZPEN ETA JAKINARAZPENAK ULERTZEA | AHOZKO JARRAIBIDEAK ULERTZEA | TXOSTENAK IDAZTEA | ENPRESARI BURUZKO AZALPENAK ESKATU ETA EMATEA |
| Txostenak | 5 | LANPOSTUEN ESKAERA/ESKAINTZAREN GAINEKO TESTUAK ULERTZEA | ENPRESARI BURUZKO INFORMAZIOA ULERTZEA | LANPOSTUEI LOTURIKO AGIRIAK IDAZTEA | HARRERA GUNEETAN BEZEROARI AHOZ ERANTZUTEKO GAI IZAN |
| | 6 | PUBLIZITATE TESTUAK ULERTZEA | PRESTAKUNTZA PROGRAMEN EDUKIA ULERTZEA | ESKAINTZA ETA KONTRATUEN XEHETASUNAK IDAZTEA | LAN-ELKARRIZKETA BATEAN PARTE-HARTZEA |
| | 7 | JARDUERA PROFESIONALARI LOTURIKO GRAFIKO ETA TESTU TEKNIKOAK ULERTZEA | HARRERA GUNEETAN BEZEROAK ULERTZEKO GAI IZATEA | BILERA, EZTABAIDA-SAIO, HITZALDI, MINTEGI ETA IKASTAROETAN APUNTEAK HARTZEA | DIAGRAMA / GRAFIKO / PIKTOGRAMAK AHOZ AZALTZEA |
| | 8 | HAINBAT FORMULARIOA ULERTZEA | DIAGRAMA / GRAFIKO / PIKTOGRAMEN ESANAHIAREN AZALPENA ULERTZEA | IRAGARKI ETA PUBLIZITATEKO TESTUAK IDAZTEA | ENPRESAKO MEGAFONIATIK HITZ EGITEA |

Egalik

*7.2 Gaitasunen zehaztapena*

Bigarren pantaila honetan (**.4**), lan eginkizun bakoitzak eskatzen dituen hizkuntza gaitasunak definitu ondoren, gaitasun horiek ekintza neurgarrietan zehaztuko dira.

Helburu orokor edo gaitasun bakoitzari dagozkion hizkuntza ekintzak (helburu zehatzak) agertuko dira:

*Adib.: 1.1 Ohiko postaren edukia ulertzea.*

1.1.1. Argibide eskaerak identifikatzea.

1.1.2. Zirkularrak, publizitate gutunak bereiztea.

*.4:*




## 8. Ebaluazio irizpideen zehaztapena

Lanbide-profiltzat gaitasunetan oinarritutako lanpostua har daiteke. Hau da, norbanakoaren edo pertsona multzoaren profil profesionala.

*8.1 Figura edo lanbide--profil desberdinen balioztapena (lanpostuak)*

Diagnostikatu beharreko profil profesionalak definitu ondoren, figura profesional bakoitzari eskatzen zaion gaitasun-maila balioztatzea beharrezkoa da.

*8.2 Diagnostikaturiko pertsonek gaur egun dituzten gaitasunen balioztapena*

Diagnostikoa egiteko, erabilitako frogak jaso ondoren, pertsona bakoitzak duen gaitasun-maila balioztatuko da (**.5**):

*.5:*

## 9. Gaitasunen mapa

Gaitasunen mapa sistema grafikoa da eta bi azpimapa hauetan oinarritzen da (**.6**):

- Gaur egun langileek dituzten hizkuntza gaitasunen maila adierazten duen mapan.
- Lanpostu bakoitzerako behar den hizkuntza gaitasunen maila adierazten duen mapan.

Gaur egungo gaitasunen mapa eta lortu beharreko gaitasunen mapa bien gainjartzeak, agerian utziko ditu bien arteko aldeak, ikas-beharrak, alegia.

Bi azpimapa hauen arteko erkaketak osatzen du gaitasunen mapa orokorra. Honen bidez, era oso argian ikustarazi daiteke:

**1** Langileek lortu beharreko gaitasun-maila.

**2** Hutsuneak identifikatu eta formazioa kudeatzeko, ikas-beharren lehentasuna.

Bestalde, gaitasunen mapa hau izango da formazio bidez lorturiko emaitzen jarraipenerako eta ebaluaziorako oinarri.

*.6:*




## *10. Egalik-en funtzionamendua*

*10.1 Formazio premien diagnosia*

**Metodologia:**

- Diagnostikatu nahi diren lan-sailak zerrendatu.
- Sail bakoitzean beharrezkoak diren hizkuntz gaitasunak identifikatu.
- Lan-sailei dagozkien figura profesionalak edo lanpostuak zehaztu eta horiei loturiko pertsonen datuak sartu.
- Figura profesional bakoitzak izan beharko lukeen hizkuntza gaitasun mailaren balioztapena egin.
- Figura profesional hori ordezkatzen duten langileen gaur egungo hizkuntza gaitasunen maila neurtu.
- Hizkuntza gaitasun egoeraren adierazle diren mapa edo grafikoen gauzapena.

*10.2 Gaitasunen mapa gauzatzeko irizpideak*

Gaitasunen mapa gauzatzeko irizpideak **.7** irudiko ibilbideari jarraikiz zehazten dira.

*.7:*




*10.3 Diagnostikatu nahi diren lan-sailak definitu*

Diagnosia egiteko lehen pausoa, diagnostikatu beharreko sail, lanpostu edo pertsona/k zehaztea da. Enpresa guztia, sail jakin bat, lanpostu batzuk edo profil zehatz baten diagnosia egin daiteke. Enpresaren esku geratuko da erabakia edo eskaera (**.8**).

*.8:*




*10.4 Hizkuntz--gaitasunak identifikatu*

Aukeratutako lan-sailetan beharrezkoak diren hizkuntza-gaitasunak identifikatu egiten ditugu. Lan-eginkizun bakoitzak eskatzen dituen hizkuntza-gaitasunak lau trebetasunetan sailkaturik agertuko dira.

Enpresako hizkuntza teknikariak edo ordezkariak hizkuntza gaitasunen mapa orokorretik, diagnostikatu beharreko sail bakoitzerako hizkuntza gaitasunak identifikatuko ditu. Gaitasun orokorrak eta hauei dagozkien hizkuntza ekintza zehatzak, hain zuzen (**.9**).

.9:




*10.5 Gaitasunen zehaztapena*

Lan-eginkizun bakoitzak eskatzen duen hizkuntza-gaitasunen zehaztapena era ebaluagarrian definiturik agertuko da (**.10**).

.10:




*10.6 Sail bakoitzari dagozkion figura profesionalak edo lanpostuak zehaztu eta haiei loturiko pertsonen datuak sartu*

Aukeratutako lan-sailei dagozkien lanpostuak eta haiei loturiko pertsonen datuak sartuko dira.

.11:



*10.7 Hizkuntza gaitasun mailaren balioztapena egin*

Figura profesional bakoitzak izan beharko lukeen hizkuntza-gaitasun mailaren balioztapena ere egitekoa da. Figura profesional horiek edo sailkaturiko lanpostuek eskatzen duten hizkuntza gaitasun-maila balioztatuko da baremoaren arabera (**.12**).

*.12:*

*10.8 Figura profesional horiek ordezkatzen dituzten langileen hizkuntza gaitasunen maila neurtu eta balioztatu*

Figura profesional hauei loturiko langileen gaur egungo hizkuntza gaitasunak neurtuko dira beharrezko frogak betearaziz eta baremoaren arabera balioztatu (**.13**).

- Lehenengo zutabean figura profesional horri dagokion hizkuntza-gaitasun maila agertuko da.
- Hurrengo zutabetan, lanpostu horri loturiko pertsonek duten hizkuntz gaitasun-maila agertuko da.

*.13:*

*10.9 Mapa edo grafikoen gauzapena eta datuen azterketa konparatiboa*

Hizkuntza-gaitasun egoeraren adierazle diren mapa edo grafikoen gauzapena eta datuen azterketa konparatiboa ere egiten da (**.14**).

*.14:*




Figura profesionalei dagozkien gaitasuna eta gaur egun langileek dutena barematu ondoren, hurrengo pausua bien arteko alderaketa egitea izango da.

- Emaitzen azterketa egiteko eta erabakiak hartzeko hauexek dira analisi tresnak:

  – *Gaitasun mapa*
  – *Txosten grafikoa*
  – *Zenbaki-txostena*

Analisi konparatiboa bi modutan egin daiteke: grafiko mailan zein zenbakizkoan. Erkaketa horren bidez, diagnostikaturiko sailetan dauden hutsuneak identifika daitezke.

- Grafiko mailan koloreen bidez adieraziko dira hutsuneak eta lorpenak.

  – Zuria: ez da maila hori eskatu.
  – berdea: langileak duen gaitasuna.
  – Gorria: hutsunea.

- Zenbaki-txostenaren bidez, maila desberdinetan egin daiteke emaitzen azterketa: pertsona mailan, figura profesional edo sailetan, gaitasun-maila kontuan izanik... Hau da; enpresak dituen beharren araberako erabakiak hartuko ditu.

## 11. Erabakiak

Enpresa bakoitzak, bere hizkuntza-irizpideak kontuan izanik, lehentasunezko ikas-beharrak eta helburuak zehaztuko ditu:

**1** Sailean edo taldean, premiazkotzat identifikatutako gaitasunen emaitzetan oinarrituz.

**2** Pertsona mailan, premiazkotzat identifikatutako gaitasunen emaitzetan oinarrituz.

## 12. Formazio prozesua enpresan

Helburua:

Enpresaren funtzionamendurako beharrezkoak diren hizkuntza gaitasunak eskuratu eta garatzea da.

Fomazio-prozesua hiru zutabetan oinarrituko da:

- Formazio-premien diagnosian.
- Formazio-ekintzen helburu identifikazioan.
- Formazio-prozesuan, lorturiko emaitzen betetze-mailaren berri emango digun ebaluazio-sisteman.

### *12.1 Lehentasunezko ikas-beharrak eta helburuak zehaztu*

Diagnostikoaren helburua ikas-beharrak identifikatzea eta horien kudeaketa eskaintzea da:

- Ikas-beharren lehentasunak modu egokian ez zehazteak formazio-prozesuan ondorio kaltegarriak ekar ditzake: egindako ahaleginaren emaitza eskasa eta formazioaren porrotan hain zuzen.
- Nahiz eta gaitasun guztiak garatu nahi izan, enpresaren helburua lortzeko beharrezkoak diren gaitasunei lehentasuna ematea ezinbestekoa da, formazioaren kalitatea eta baliabideen kudeaketa bermatzeko.

Ikas-beharren lehentasuna zehazteko erabiltzen diren irizpideak enpresa edo erakunde bakoitzaren arabera ezartzen dira, hala ere, badira erakunde edo enpresa guztietan erabiltzen diren oinarrizko irizpideak:

- Formazioari erantzungo dioten baliabideak.
- Plan estrategikoan jasotzen diren irizpideak.
- Identifikaturiko ikas-beharren eraginkortasun-gastuaren arteko lotura.
- Formakuntza jasoko duen taldea (kopurua eta ondorioak).
- Premiazko egoerak.
- Zuzendaritzaren eta arduradunen adierazpen eta aginduak.

### *12.2 Formazio--ekintzen definizioa*

Behin ikas-beharrak identifikatu, aukeratu eta lehentasunak zehaztu; hurrengo pausoa adostutako formazio planaren diseinua gauzatzea izango da. Formazio-ekintza bakoitzaren helburuak ondo definitu behar dira. Helburuen definizio zehatza formazio-ekintzaren ardatza izango da. Eta helburuak argi zehazteak formazioaren gainerako aspektu guztiak determinatuko ditu (edukiak, metodoak, materialak, etab...).

### *12.3 Formazio planaren kudeaketa*

Formazio-planaren diseinu-prozesua bukatu ondoren, zehaztutako baliabideak funtzionamenduan jarriko dira.

Giza baliabideak edo formazio-prozesuaren partaideak hauexek dira:

- Zuzendaritza eta formazio arduradunak.
- Formazio teknikariak.
- Irakasleak edo formatzaileak.
- Ikasleak edo langileak.
- Laguntzaileak.
- ...

Baliabide materialak:

- Instalazioak.
- Material pedagokikoa.
- ...

Baliabide funtzionalak:

- Ordutegiak.
- Matrikulak.
- Aurrekontuak.
- Diru-laguntzak.
- ...

*12.4 formazio--planaren jarraipena*

Formazio-planaren jarraipena eten gabekoa izango da eta prozesuaren atal hauek kontuan hartuko ditu:

Formazio-ekintza bakoitza:

- Asistentzia.
- Formazioaren kalitatea.
- Kostua.

Partaide bakoitza:

- Asistentzia.
- Ikasitakoa.

Formaziorako plan osoa:

- Formazioaren kalitatea.
- Asistentzia.
- Betetze edo gauzatze-maila.
- Formazio ahalegina.
- Kostua.

*12.5 Formazio planaren ebaluazioa*

Ebaluazioa formazio-beharren diagnosian eta formazio-ekintzen helburuen definizioan oinarrituko da.

Bi helburu bete beharko ditu:

- Formazioan ezarritako helburuen lorpen-maila adierazi.
- Formazio-prozesuan eta kudeaketan egin beharreko egokitzapenak identifikatu.

Ebaluazioaren ikuspuntua integrala izango da eta aspektu asko ebaluatu beharko ditu ikas-prozesuaren fase desberdinetan.

Aspektuak:

- Helburuen betetze-maila.
- Antolamendua eta planifikazioa.
- Metodo, teknikak eta erabilitako baliabideak.
- Eraginkortasuna.

Faseak:

- Formazio-plana hasi aurretik (Diagnostikoa).
- Formazio-prozesuan.
- Formazio-planaren bukaeran.

*.15:*




AEK-k apustu handia egin du teknologia berriaren alde. EGALIK horren emaitza da, hain zuzen.

Jauzi kualitatiboa hau beharrezko ikusi dugu, gure gizartean euskalduntzearen alorrean sortzen diren behar eta eskaera berriei, baliabide teknologikoen laguntzaz, eraginkorrago erantzun ahal izateko eta bestelako metodologietan aplikatzen diren lan-sistemak euskalduntzeko metodologiara ekarriz eta egokituz.

Joan den uztailean, UEUn aurkeztu zuen EGALIK AEK-k eta, aurten, jarri du zerbitzu hau abian. Horretarako, EGALIKen erabileraz arduratuko diren teknikariak formatu ditu AEK-k lan honetan aritzeko.

EGALIK Interneten bidez erabiltzen da eta honi buruzko informazioa www.aeknet.net Web-orrian aurki daiteke. Halere, informazio zehatzagoa nahi duenak jo beza telefono edo helbide hauetara: Tfn: 943 201379 eibar@aeknet.net